

2026ko Baxoaren azterketak euskaraz pasatzearen aldeko sostengu mozioa

- Ikusirik Hezkuntza Kodearen 121-3 artikulua, azterketa eta konkurtsoetan eskualdeko hizkuntzen lekua aitortzen duena,
- Ikusirik 2021eko abenduko zirkularra, hezkuntza sisteman «eskualdeetako hizkuntzen» sustapenari eta balorazioari buruzkoa, non aurreikusia den « Baxoan azterketak eskualde hizkuntzan aurkezten ahal » direla,
- Kontuan hartuz, 2012tik euskarazko irakaskuntza segitzen zuten ikasleek, 2019ko erreformara arte, Baxoaren azterketa batzuk euskaraz pasatu zitzaizkela, zehazki Matematika eta Historia-Geografia,
- Kontuan hartuz 2025eko ekainean argitaratu den ministeritzaren erabakiak, Matematika azterketa aitzinatuko ibilmoldeari buruz, ez duela zehazten zein hizkuntzatan erantzun behar den, eta ondorioz orain arteko praktika bermatzen duela,
- Kontuan hartuz hunkituak diren ikasleak, 2025-2026 ikasturtearen hastapenetik, azterketa hori euskaraz egiteko prestatu direla, aitzineko urteen jarraipenean, eta orain arte ez zaiela kontrakotasunik jakinarazi,
- Kontuan hartuz prestakuntza hori Hezkuntzaren zerbitzu publikoaren konfiantza eta jarraipen printzipio batean oinarritzen dela,
- Kontuan hartuz 2026ko ekaineko Matematika azterketa aitzinatua euskaraz pasatzeko debeku baten iragartze berantiarra haustura bortitza eta arrazoirik gabekoa dela,
- Kontuan hartuz erabaki horrek ehun ikasle baino gehiago zailtasunean ezartzen dituela eta segurtasunik gabeko egoera pedagogiko bat sortzen duela eta gazte hauen etorkizunerako ondorioak dituela,
- Kontuan hartuz Frantziako Hezkuntza ministroak Baxoan hizkuntza minorizatuen lekua bermatzeko 2027rako neurriak hitzeman dituela, eta 2026ko azterketa aitzinatua egutegi horretan sartzen dela,
- Kontuan hartuz 2012 urtetik abiatua zen Matematiketako esperimendazioa segitzea aterabide erraza, pragmatikoa eta errespetuzkoa litzateke ikasleentzat eta Estatuaren engaiamenduaren adierazgarri,
- Kontuan hartuz azterketak euskaraz aurkezteko hiru sareek (publikoak, pribatuak eta Seaskak) sustengatzen duten eskaera dela, eta eskaera hori aho batez sustengatua dela Ipar Euskal Herriko parlamentari eta ordezkari instituzionalen aldetik,
- Kontutan hartuz euskara dela Europako hizkuntza zaharrena eta Europako Hizkuntza Gutxituen Gutunak bigarren hizkuntzan hizkuntza gutxituen erabilera bermatzeko neurri zehatzak eskatzen dituela,

Oñatiko herriko kontseiluak (udal-batzak):

- Sustengu osoa adierazten die euskarazko irakaskuntzan sare ezberdinetan ari diren ikasle, familia eta hezkuntza taldeei.
- Galdegiten dio Bordeleko akademiako errektoreari, behin behinean, euskaraz pasatzeko aukera atxikitzea, 2012tik indarrean den esperimendazioaren jarraipen gisa, Matematika azterketa aitzinatua Lehen mailako ikasleentzat.
- Dei egiten dio Frantziako Hezkuntza ministroari, 2026ko ekaineko azterketetan « eskualdeko hizkuntzen » egiazko kontsiderazioa berma dezan, luzamendurik gabe, bereziki matematikako aurreratu azterketan, Lehen mailako ikasleentzat eta Ahozko Proba Handian, Terminaleko ikasleentzat.
- Oroitarazten du hizkuntza gutxiagotuen aldeko diskurtsoak ekintza zehatz eta koherenteetan islatu behar direla.
- Goraki aldarrikatzen du Euskararekiko atxikimendua, gure lurraldeko ondare bizia baita. Oñatin, 2026ko maiatzaren 29an

